

## CAN THE SUBALTERN STATES SPEAK? ESTATUAREN ERALDAKETA ETA BURUJABETZA ESKAERAK KATALUNIAN, EUSKAL HERRIAN ETA ESKOZIAN

**Tesiaren egilea:** Jon Azkune Torres

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea

**Saila:** Politika eta Administrazio Zientziak

**Tesi-zuzendaria:** Jule Goikoetxea Mentxaka eta Igor Ahedo Gurrutxaga

**Tesiaren laburpena:**

Ikerketa honen abiapuntua zuhurtasun analitiko batetik baino gehiago kezka pertsonal eta kolektibo batetik dator. Sezesio-prozesuek, eskuin edo ezkerreko populismoek, austeritatearen aurkako mugimenduek, alderdi politiko berriek, Europar Batasunaren krisiak, feminismoaren loraldiak, krisi ekologikoak edota azken urteetan ugaritu diren borroka anitzek, ba al dute euren artean harremanik? Era isolatuan aztertzea gomendagarria da, edo komunean duten erroak lehentasuna izan beharko luke? Nola txertatu nazionalismoari buruzko ikerketak egungo egiturazko aldaketan baitan?

Lehenik eta behin, agerikoak diren fenomeno horiek aintzat hartuta, euren artean «ezkutuan» duten konexioa hobetsi dugu. Hori dela-eta, egungo burujabetza-eskaeren dimentsio ontologikoa aztertzearen beharra azpimarratu dugu. Helburu zehatzei dagokienez, Euskal Herrian, Katalunian eta Eskozian gaitasun politikoan oinarrituriko burujabetza-eskaera garaikideak izan ditugu aztergai. Euskal Herriari eta Kataluniari dagokienez, alde aurretik esan beharra dago, Euskal Autonomia Erkidegoa eta Kataluniako Autonomia Erkidegoa izan direla ikergai nagusia.

Gure lana garatzeko hausnarketa teoriko sakon bat burutzea funtsezkoa izan da: Marx, Gramsci eta Foucault bezalako autoreen lanetan oinarrituta dauden bi eskolen arteko elkarrizketa sustatu dugu: Bob Jessopen *Ikuspegi Estrategiko Harremanezkoa*, eta hegemoniaren eraikuntza aztertzen duten Ernesto Laclau eta Chantal Mouffen *Essexeko Eskolaren Diskurtsoaren Teoria*.

Abiapuntu teoriko horretan oinarrituta, era dialektikoan ulertu behar diren bi joera aztertu ditugu. Alde batetik, Estatuaren baitan jazotako eraldaketan ondorioz demokraziaren pribatizatorako eta estatismo autoritariorako joerak. Plano abstraktu simple batean burujabetza, demokrazia eta estatuari buruz hausnartu ostean, azken hamarkadetan Europar Batasunean, Espainian eta Erresuma Batuan jazo diren aldaketak landu ditugu. Jule Goikoetxearen hausnarketekin bat eginez, eskala horietan demokraziaren pribatizazioak izan dituen eraginaren ondorioz «krisi

organiko» bat jazo dela deritzogu. Era dialektikoan ulertu beharreko prozesua da: burujabetza-eskaerek krisi organikoa sakondu dute, baina aldi berean krisi organiko horien ondorio ere badira.

Bestetik, aipatu estatuaren eraldaketaren txanponaren beste aldean, nazio historikoen eskalan lurralde, autoritate eta eskubideen mihiztaketa berria aztertu dugu. Azken horren ondorioz, «estaturik gabeko nazio» deitu ditugun horietan demokratizazio prozesu propioak garatu dira, nazioak era demokratikoan birsortuz. Hori dela eta, gaur egun «estaturik gabeko nazioa» balio analitikorik ez duen kontzeptua dela deritzogu, eta haren ordean, «estatalitate subalternoa» kategoria garatu dugu. «Estatu matizeen» (Espainia eta Erresuma Batua) eta «Estatalitate subalternoen» (Eskozia, Euskal Herria eta Katalunia) baitan garatzen diren demokratizazio eta nazio eta estatu eraikuntza-prozesu ezberdinen arteko lehia kokatzen ditugu egungo gatazka «soberanistak».

Horren ondorioz, egungo burujabetza-eskaerak nazionalistak direla adierazten badugu, beren erro demokratikoa alboratu eta nazionalismoaren ikerketari dagozkion ezaugarri «kultural», «identitario» «partikularrak» atxiki beharko genizkieke. Hori dela-eta, gure aburuz, ez du zentzurik «nazionalista»ren eta «ez nazionalista»ren arteko banaketak, «nazionalista zibiko»en eta «etniko»en arteko banaketak edota kapitalismo finantzarioaren krisiaren ondorioz pizten diren «gatazka demokratikoen» eta nazionalismoaren eraginez sortzen diren «gatazka identitario»en banaketak. Gatazka demokratikoak gatazka nazionalistak dira (M-15 eta austeritatearen aurkako mugimenduak orokorrean) eta gatazka nazionalistak gatazka demokratikoak dira (Eskozia, Katalunia, Euskal Herria). Egungo Europar Batasunaren baitan banaketa horiek egiteak nazionalismoaren eta demokraziaren falazia epistemikoan sakontzea besterik ez du eragiten.

Estatu-egitura demokratikoen eta aktore katalan, euskaldun eta eskoziarren arteko dinamikaren ondorioz subjektu/objektu berri bat sortuko da, demos katalana, euskalduna eta eskoziarra. Horren ondorioz nazio katalana, euskalduna eta eskoziarra era demokratiko batean birsortuko dira: naziogintza, demosgintza eta estatugintza aldi berean burutuko dira beraz. Horregatik, estaturik gabeko nazioen ordean estatalitate subalternoei buruz hitz egin dugu.

Ondorio nagusiei dagokienez, honako hau esan dezakegu: gure ikuspegitik, egungo gatazken gakoa ez da «ezberdina den nazio baten kulturaren akomodazioa», baizik eta nola eta zein neurritan hitz egin dezaketen estatalitate subalternoek.